

**ANDRES MARIA URRUTIA BADIOLA,
EUSKALTZAINBURU BERRIA,
ERAKUNDEAN KARGU-HARTZEA**

Bilbo, egoitza, 2005-I-27

EUSKALTZAINDIAN KARGU-HARTZEA

Jean Haritschelhar

Lehendakari Jauna,
Excelentísima Señora Ministra de Educación,
Agintari agurgarriak,
Euskaltzainburu jauna,
Euskaltzainkideak,
Jaun-Andreak, arratsaldeon.

Urteak iragan dira: 42 Euskaltzaindian enetzat, haietan 38 zuzendaritzan, 22 euskaltzainburuorde eta 16 euskaltzainburu. Etorria zen karguaren uzteko ordua. Zaharrena izanez Iratzederekin, izendapenaren arabera (1962ko uztairean 27an izendatua izan ginen) azken lau hamarkadetan Euskaltzaindian egin diren lanak nahi nituzke aipatu.

Arantzazuko biltzarra da Euskaltzaindiarentzat bihurtune nagusia, orduan erabakitzen delakotz euskara batuaren alde jokatzea. *Urre ezteiak* ziren eta haiek ospatzeko nola ez obra, kazetari, idazle, irakasle eta euskaltzain batzuen artean bazebilen ideia nagusia: euskara batuaren beharra. Giro berri bat sortzen ari zen, bereziki Hegoaldean, ordua zen lanean hasteko eta gauzatze-ko lehenbiziko euskaltzainen ametsa, hastapen bat ukan zuela 1920.ean Campion, Broussain-en txostenarekin.

Zertan gaude orain?

Arantzazuko Biltzarrean argiki urratu zuen bidea Koldo Mitxelena euskaltzain zenak, erakutsiz Euskaltzaindiaren eginbidea zela gidari izatea, bide erakuslea, batasuna lortuz azaleko auzietan lehenik, hasiz ortografiarekin, segituz morfologiarekin eta azkenik joskerarekin.

Ortografiarena egina aspaldi honetan, morfologiari doakonez batasuna lortua dabere ñabardurekin, bai izenen deklinabidean, bai erakusleetan bai eta ere adizean, izan dituen aditz laguntzaileak edo aditz trinkoak, ahantzi gabe hitanozko formak, Joskeraren garaia etorriko da segitzen baitu Euskaltzaindiak normalizaziorako bidea.

Ez zuen aurre pausu hori emanen Euskaltzaindiak ez balitz sartu, denbora berean, lan sakonetan bere bost batzorde nagusiei esker. Euskara idatziaren altxorra *Orotariko Euskal Hiztegia*n daukagu, osoki bukatua baita, XVI. libu-

rukia editoreen eskuetan dagoela duela hilabete bat baino gehiago. Horri esker hiztegi batuko lehen itzulian 23.000 hitz erabakiak izanak dira.

Bigarren altxorra ahozko euskararena Atlaseko inkestei esker (2.800 galdera 145 herritan) pentsatuz ere lekukoak mintzatu direla laxoki, ixtorio konda, egiazko euskalkiaren hiztegia eta gramatika sartzen direlarik solas horietan, bai eta ere ahoskera eta azentua. Hori da Dialektologia batzordearen emaitza.

Gramatika batzordeak sei liburuki agertu ditu, zazpigarrena bukatua, Argitalpen batzordearen eskuetan dela. Joskeran sartua da, segitzen du bere lana behar duen bezala finkatzeko egun batez euskara batuaren joskera.

Onomastikako batzordeak kaleratu ditu *Euskal izendegia*, gizasemeen izenena eta ponte izenena, herri eta herritarren izenenena Euskal Herri guztian, ahantzi gabe euskal deituren izendegia Espainiako Gobernuak eta Eusko Jaur-laritzak babesturik agertua.

Literatura batzordeko kide nihaur izanez eman dezaket nire lekukotasuna. Bukatutzat ematen da Literatura kritika hiztegia, jakinik ere kide guzietan parte hartzen dutela kongresuetan lan, txosten, mintzaldiak azalduz euskal literatura idazleei buruz izan dituen Iparraldekoak hala nola Etxepare, Oihenart, Elizanburu, edo Hegoaldekoak Larramendi, Kardaberaz, Lizardi, Orixe eta aurtun Lauaxeta.

Lan sakonak horiek guziak, lan ixilak ere eguneroko lanak euskaltzainek, urgazleek, batzordekideek (gehienak Unibertsitateko irakasleak) gogotik eskainiak, baitakite denek euskararen onerako lanean ari direla. Lan sakon, lan ixil horiek nahi ditut gaur goraipatu kargu aldaketa honetan, eskertzen ditudalarik, denbora berean, batzorde guztietan parte hartu eta hartzen duten ikerle guziak, haien artean zendu direnak gogoan ditudala.

Eguneroko lana, lan xumea baina emankorra, Euskaltzaindiaren egoitzan eta ordezkaritzetan langileek egiten dutena, jendearen galdeei erantzunez, haien zerbitzari leialak izanez, zabalduz Euskaltzaindiak hartzen dituen erabakiak bai ere agertzen dituen liburuak. Eskertzen ditut bihotzez ordezkariekin batean zabaltzen dutelakotz Euskaltzaindiaren irudi ona Euskal Herri osan, mugaz gainetik euskaldun guztien artean lokarri bat baita Euskaltzaindia eta zaintzen duen hizkuntza gure hizkuntza maitea.

Eta orain, zuei mintzo natzaizue agintzari agurgarriok. Zuri lehenik, Lehendakari jauna: bai zuk eta bai Eusko Jaur-laritzak beti harrera ona egin diozue Euskaltzaindiari, ez diozue sekulan diru-laguntzarik ukatu, bereziki eza-gutu dituen garai latzetan, bultzatu, aldiz, sar zedin orainaldian informatika eta tresneria berrien erosteko laguntza eskainiz, hala hedatzen baita mundu zabalera Euskaltzaindiaren emaitza, Interneten egiten diren bisitak direla lekuko.

Bizkaiko Foru Aldundiari zor diogu gure egoitza eta gero Eusko Jaurlaritzak eta hiru foru aldundiak bildu dira egoitza hori ederki apaintzeko. Inauguratu zen eguna egun ederra eta ezin ahantzizkoa izan zen Euskaltzaindiarentzat.

Hitzarmen batek lotzen ditu Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila, Autonomia Erkidegoko hiru Foru Aldundiak eta Euskaltzaindia, hitzarmen berri bat sinatuko delarik laster; nola ez dut baliatuko gaurko eguna, denak bilduak zaretelarik hemen, eskerrik beroenak eskaintzeko zuri eta hiru diputatu nagusiei orain arte erakutsi diguzuen atxikimenduarengatik, egin duzuen diru-laguntzarengatik eta, geroari begira, eginen duzuenarengatik baitakigu atzo eta egun bezala bihar ere zuekin konda dezakegula.

Ez ditut ahantzi nahi Nafarroako Gobernua ez eta ere Iparraldeko agintariak. Nafarroarekin badugu hitzarmen bat; Iparraldean hitzarmen bereziari esker, frantses Kultura Saila, Akitaniako Kontseilua eta Departamenduko Kontseilu Orokorrengatik Euskaltzaindiak diru-laguntza badauka urtero. Har dezatela denek Euskaltzaindiaren izenean ene eskerrik beroenak. Madrilgo Gobernari eta orain hemen dagoenez gero Ministra andere agurgarriari doa mila esker handi bat.

* * *

Excelentísima señora, le agradezco mucho su presencia en este acto y también la ayuda financiera que aporta su Ministerio.

* * *

Argi eta garbi daukagu gogoan ez zuela Euskaltzaindiak egin duen lana eta emaitza eginen ez balu denen sostengu nasara ukan.

Duela 16 urte kargu aldaketa Aita Villasante eta ene artean egin zen Bizkaiko Foru Aldundian Ardantza jauna orduko lehendakariaren eta Pradera diputatu nagusiaren aintzinean Mari Carmen Garmendia Lasa zela, ene ustez, bestaren asmatzailea. Orduan sortu zen ohidura berri bat, ofizialki agintari guztien aurrean eginez kargu aldaketa. Ohidurak segitzen du gaur, orain gure egoitzan, beste ohidura berri bat plazaratzen dugularik. Erakusteko euskaltzainburua dela *primus inter pares* lehentasunaren lekuko hona euskaldun makila Andres Urrutia Badiola euskaltzainburu berriari eskaintzen diodana. Doala euskaltzainburuz euskaltzainburu hemendik aintzina, ene zorionik beroenak hartzen dituela euskaltzainburu *primus* delakoak ni sartzen naizela berriz *pares* delakoen artean.

EUSKALTZAINDIAN KARGU-HARTZEA

*Andres Urrutia Badiola,
euskaltzainburu berria*

Joan den urteko abenduaren 17an, Euskaltzaindiak, bere historian hainbat aldiz egin duen bezalaxe, zuzendaritza-karguak berriztatu zituen. Beste behin ere, Euskaltzaindiak erakutsi zuen instituzioa dela, hain zuzen, euskararen instituziorik gorena.

Egun hementxe gara horren testigantza emateko, eta, beharbada, Xabier Kintana idazkari eta fedemaileak irakurritako aktaren hitzei, espiritua eta arima emateko, behar den moduan girotzeko.

Egun ere agur esaten dio karguari urteetan gure buru izan denak, Jean Haristchelhar jaunak. Zure aurretik, Jean, halako arduretan izan ziren Resurreccion Maria Azkue, Ignazio Maria Etxaide, Jose Maria Lojendio, Manuel Lekuona eta Luis Villasante. Haiengandik jaso zenuen lekukoa gaur ematen



duzu, gure aurrean. Ohore zuri, Jean, beti gidatu duzulako tinko eta fermu, esku onez eta trebez, Euskaltzaindiaren norabidea eta ibilbidea.

Zuregandik ikasi dugu Euskaltzaindiaren izena eta izana aurrera eramaten, egoki zertzen. Zuregandik ere, egoera korapilatsu zein erosoagoetan, irtenbideak bilatzen eta euskaldunei euren euskararen harrotasuna erakusten, berez dituzun dohainak eta eskarmentuz zureganatu dituzunak eskuzabal eskaini dizkiezula gure instituzioari eta euskaltzain guztioi, ohorezko, oso nahiz urgazle izan. Zer esanik ez, etxeko behargin eta langile prestuei ere.

Lausenguak eta losintxak baino, beti maite izan dituzu lana eta ekina. Badakigu kargua uzten duzula, dakigularik euskaltzain oso moduan zure ekarriak eta jakituria aurrerantzean ere gure esku izango ditugula, halako esperientzia handiko maisuak hasiberriko urduriari dion harrera eta arreta artatsu berberarekin.

Lana behin baino gehiagotan aipatu duzu zure hitzaldi, agerpen eta plazaratze uneetan. Euskaltzaindiaren lana, bereziki. Lanerako gonbita egin zenuen 1989. urtean, Aita Villasanterengandik euskaltzainburutza eskuratu zenuenean. Orduko zure hitzak, orduko zure esanak ditut gaur nik gidari, Euskaltzaindiaren nondik norakoak eta egitekoak zehazteko.

Lanak hasiak dira, behar dira bururatu.

Hona, hitzez hitz, orduko zure esamoldea. Gaur, ostera, orduko lan hasi berriak bururatu direla, neurri batean bederen, ezin uka. Horra hor *Orotariko Euskal Hiztegia*, bukatua, horren azken liburukia aurki argitaratuko dela. Horra, *Atlasa*, amaitzeko tenorean jarrita, laster ere horren fruituak bistaratuko ditugula. Horra, *Hiztegi Batuaren lehenengo itzulua*, euskarari, prestutasuna ez ezik, erreferentziak ere eman dizkiona.

Bururatu aditza erabili zenuenean, ez zinen desbideraturik ibili. Izan ere, euskararen lanek egunero-egunero, aldiro-aldiro, bestelako, osterantzeko eskakizunak sortzen baitituzte. Bizirik dagoelako seinale zalantza gabekoa.

Euskara batuaren moldaketa zen garai hartako erronka nagusia. Hamabost urte geroago, begien bistakoak dira orduko ekinaren ondorioak. Euskara batua abian dugu; euskara bera, kodeketa eta estandarizazio horren bitartez, egunerokotasunerako tresna bihurtu da unibertsitateetan, irakaskuntzan, komunikabideetan, administrazioan... Oro dira horren erakusle, eta gure akulari eta zirikatzaille fin eta zorrotzak, bekoz beko errealitate ezohikoak jartzen dizkigutenak euskararen esparruan.

Sarea, informatika, baliabide elektronikoak... badira, gure artean ere, ezinbesteko osagaiak hizkuntzaren geroari egoki eusteko. Hor ditugu lanabes berriak, euskarak nahitaez behar dituenak.

Lanabesak, hala ere, hutsalak eta arima gabekoak dira, baldin eta egitasmo eta proiektuak artean ez badira. Euskaltzaindiak baditu halakoak, hain justu ere, Euskaltzaindia bera XXI. mendean jarri behar dutenak.

Euskal Gramatika Orokorra, Hiztegi Batuaren definizioak, hiztegi gintza-
ren ikerketak, Euskal Corpus Onomastikoa, Euskal Literaturaren azterketak...
Horiek dira jendaurrean plazaratu beharrekoak, horiek osatzen baitute, gure iri-
tziz, osterantzeko gogoak, behinola egindako euskara batuaren kodeketari gure
belaunaldiak ekar diezaiokeen eite edo tankera berezia.

Behar dugu, orobat, euskara zabaldu eta euskaldunen arteko ahozko era-
bilera jagon, jakinik, hori bai, euskara guztiona dela, berriz diot, guztiona,
egongela honetan eta euskal gizartean diren ideia, sentsibilitate, iritzi eta abu-
ru desberdinena, euskarak berak guztion ahalegina eta konpromisoa behar due-
lako.

JAGON zeregin horren zerbitzuko dauka Euskaltzaindiak JAGONET sista-
ma. Horren bidez, gizarteari eskaintzen zaiona baliotsu eta esanguratsua da,
eta, are gehiago, hobetu beharrekoa. Euskararen erabilerak ere kezkatzen du
Euskaltzaindia, hizkuntzak berez duen komunikagarritasuna babestu beharre-
an dagoelako, batez ere, beraren bizi iraupena bermatu behar duen euskara
moduko hizkuntza batean.

Badaki Euskaltzaindiak herrialde euskaldunen egoerak desberdinak dire-
la, antolakuntza politiko eta administratiboaren aldetik. Leku batzuetan ofi-
zialkidea da euskara gaztelaniarekin batera, lurraldez mugatua bada ere ofi-



zialkidesun hori beste leku batzuetan. Bada, bestalde, ofizialtasun bat ere ez duen euskal lurraldea.

Europa dugu ate joka. Hara goaz eta hark jarri dizkigu, dagoeneko eta larregi konturatu gabe, jokamolde berriak, guretzat, sarri askotan, ezezagun direnak. Hark ere baldintzatuko du euskararen etorkizuna, hur-hurretik begiratu beharko diogula prozesu horri.

* * *

El euskera, sin embargo, no es sólo una cuestión de la Comunidad Autónoma Vasca o Navarra. El euskera es algo vivo, también uno de los símbolos de identidad de España, y una de sus riquezas culturales, proclamada por la Constitución en el artículo 3.3 donde se afirma que «la riqueza de las distintas modalidades lingüísticas de España es un patrimonio cultural que será objeto de especial respeto y protección».

La Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia surgió en 1918 de la iniciativa de las cuatro Diputaciones Forales de Araba/Alava, Bizkaia, Gipuzkoa y Navarra/Nafarroa. Su personalidad jurídica y su naturaleza consultiva oficial, con un ámbito de actuación que se extiende a los cuatro territorios, nos pone de manifiesto una vez más su carácter institucional, ya establecido por el Decreto 573/1976, de 26 de febrero, de reconocimiento de su personalidad, confirmado posteriormente por el Real Decreto 272/2000 de 25 de Febrero, de modificación de sus Estatutos en su artículo 1.j): «Como institución consultiva oficial en materia de lengua, expedir los oportunos certificados, informes y dictámenes».

Por eso hoy la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia quiere recordar, en presencia de los representantes de las diputaciones fundadoras, del Gobierno de Navarra como continuador de la Diputación Foral de Navarra, del Gobierno Vasco y del Gobierno de España, su profunda convicción de que la lengua vasca es algo en lo que todos y cada uno de ellos debe implicarse. Esperamos sinceramente que todos ellos, sin exclusiones y con independencia de adscripciones ideológicas concretas, sean un factor importante en el desarrollo y financiación de los trabajos que esta Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia realiza en torno al euskera, una lengua que nosotros, sus hablantes, no queremos arcaica, ni objeto de exposición en una vitrina de un museo, sino de utilización diaria en todos los ámbitos de la vida social y con una presencia europea significativa.

Un saludo a los hablantes de las lenguas castellana, catalana, gallego-portuguesa, aragonesa, asturiana y aranesa-gascona-occitana, que son, como los hablantes de la lengua vasca, miembros de una comunidad cultural acrisolada por siglos de convivencia.

* * *



Il faut continuer à travailler afin de rendre la langue basque officielle de la même façon que la langue française dans les territoires de Lapurdi, Nafarroa Beherea et Zuberoa.

Basque language, literature and culture must be known and have to be translated into the largest written and spoken languages all around the world. Euskaltzaindia/the Royal Academy for the Basque language will promote the work of spreading Basque language through international scientific fields of research and development.

* * *

Kanpoan diren euskaldunak ere ez zaizkigu arrotz, senide eta etxeko baino. Beti izango dute Euskaltzaindian abegi amultsu eta beroa.

Baliabide handiak behar dira halako proiektuei eusteko. Baliabide material eta pertsonalak, Euskaltzaindiak administrazio publiko eta gizabanako nahiz pertsona juridiko desberdinengandik jasotzen dituenak. Eskerrak, beraz, zuei, gure lana egingarri egiten duzuenoi. Zin-zinez eskerrak, eta aurrerantzean ere horrela jarraitzeko deia luzatu.

Diru publikoa darabil Euskaltzaindiak. Badaki diru publikoa erabiltzeak berebiziko erantzukizuna dakarrela, guztion sosa baitira hor tartean dabiltzanak. Izatez, Euskaltzaindiak badu berebiziko betebeharra, bere proiektuak adin onez, taxuz eta artez egiteko, eta bere buruari ere berak gizarte eta agintari publikoei eskatzen dien eskakizun-maila berbera ezartzeko.

Barne antolakuntzari buruzko arategiak ere behar ditu gaurkotu eta eguneratu Euskaltzaindiak. Malguago jokatu, euskaltzain urgazleak berbizitu, akribatu, euskaltzain osoengandik gertuago jarri. Datozen urteetan, andrazko zein gizonezko, euskalgintzaren hamaikatxo aditu, jakitun, sortzaile, eragile... bertaratu beharko dira, euskaltzain oso zein urgazle izateko. Horretarako, bistan da, Euskaltzaindiak euskalgintzaren gune erkide behar du izan, bertara biltzen baitira bateko eta besteko euskaldunak, mugaz, ideologiaz, pentsaeraz... bereiz direnak, baina euskara lokarri dutenak.

Hor dira unibertsitateak (Euskal Herriko Unibertsitatea, Deustukoa, Arrastekoa, Nafarroako Unibertsitatea eta Unibertsitate Publikoa, Bordeleko eta Pabeko unibertsitateak); hortxe ere, euskararen inguruan diharduten hainbat talde, elkarte, federazio, terminologia-ikergune eta zentro, enpresa eta komunikabide. Horietako batzuek, dagoeneko, ageriko loturak dituzte Euskaltzaindiarekin. Beste batzuk ere, hurrengo urteetan ekarri beharko ditugu gure arlora, eta eurokin hitzarmenak egiteko bidean jarri. Hartara, Euskaltzaindiak, lehendik dituenak ez ezik, areagotu ere egin beharko ditu horiekiko harremanak. Paper hutsezkoak baino, errealitateak eta fruitu berriak ekarri beharko dituzte horiek.

Bada, hortaz, nekea non hartu Euskaltzaindiaren sailetan. Neke-lor horietan bete-betean jarduteko euskaltzain osoek aukeratu dute zuzendaritza berria, hemen hitz egiten dizuena horren buru dela. Talde moduan gatzokizue, helburu zehatz batzuen asmoarekin. Aukera hori baliatuko dugu, eta eginbeharrekoa, zilegi bekit hala esatea, onartzen dugu, oraingo honetan ni neu neure zuzendaritza-kideen ordezkari naizela.

Ordua da neke eta lorrerako. Lanak hasiak dira, behar dira bururatu. Halaxe esan zuen Jean Haristchelhar euskaltzainburuak kargua hartu zuenean. Gure lanak gaur hasten dira; gure lanen zerrendan gaur irekitzen dugu lehen orri zuria. Hura lerro zuzenez moldatzeko, guztion laguntza beharko dugu. Zuengandik eta euskaldunengandik halakoxea eskuratuko dugulakoan, gurea behintzat, gogotsu letorke, harako *Ekin eta jarrai* haren bidetik, XXI. mendean gauza bera beste modu batez esateko eta egiteko, alegia, *ekinean jarrai*.

Mila esker

**EUSKALTZAINBURU BERRIA,
ANDRES MARIA URRUTIA BADIOLA JAUNAREN
KARGU-HARTZEA**

*Juan Jose Ibarretxe,
lehendakaria*

Euskaltzaindia bezalako erakunde baten premiaz arduratu zirenak garai hartako euskaltzale gorenarikoak izan ziren. Euskarari zor zitzaion erakunde bat sortzen asmatu zuten. Garai hartan –duela 86 urte– egin ahal izan zena egin zen, Orduan euskara mundu akademikotik urrun zebilen. Urrun zebilen literatura mundutik ere, Baina izan ziren pertsona batzuk, eta erakunde batzuk, ohartu zirenak gure hizkuntzaren balioaz eta garrantziaz. Gaurko begiekin ikusita, hasiera apala izan zen, baina, dudarik gabe, Euskaltzaindiaren sorrerarekin urrats handi bat eman zuen Euskal Herriak eta euskarak berak geroari begira.

Euskaltzaindiaren helburu nagusia eta izateko arrazoia euskara estandar bat sortzea zen. Literaturarako balioko zuen euskara proposatu behar zuen. Horretarako, arauak (hiztegia, gramatika,...) proposatu behar zituen.

Denok dakigu, euskararen batasuneranzko bidea oso luzea izan dela. Hasieran, eginkizunaren zailtasunak jendea atzera botatzen zuen. Ez zen adostasunik ikusten. Baina azkenean, 1968. urtean, Arantzazun, ezarri ziren hizkuntza idatzi batuak behar zituen oinarriak eta ordutik hona Euskaltzaindiak oso urrats handiak egin ditu bide horretan. Euskara batua izugarritzko lorpena izan da eta lorpen horren gauzatzailea Euskaltzaindia izan da. Euskal Herriak eta euskalgintzak Euskaltzaindiarekiko zor izugarria du eta hori aitortu beharra dago.

Gainera, Euskaltzaindiak halako autoritate bat, (edo itzala esango genuke euskaraz) irabazi du euskaldunon artean. Eta hori inportantea da. Are gehiago gurea bezalako Herri batean, non ez ditugun erraz onartzen batasun bideak, diren motakoak direla. Euskaltzaindiak Euskal Herri osora zabaldu du bere itzal hori. Euskal Herri osoan onartua den erakunde gutxietakoa dugu, hain zuzen, Euskaltzaindia. Horregatik, eskerrak bene-benetan, Akademiari euskalgintzan lortu duen rol hori lortu ahal izan duelako.

Gauzak horrela, gizarte erakundeek eta herri aginteek erabateko laguntza eta babesa eskaini eta eskaintzen diogu geure Akademiari. Euskal Herriko diputazioek sortu zuten. Gaur diputazio horiei Euskal Autonomia Erkidegoko Jaurlaritza ere batu zaie eta denon artean saiatzen gara Euskaltzaindiari behar

dituen baliabideak eskura jartzen. Saiatzen gara Euskaltzaindiaren lana errazen eta duintzen. Eta hala segitzeko borondatea dugu.

Garaiak asko aldatu dira. Euskaltzaindiaren zeregin nagusia euskara batua lantzekoa baldin bazen ere, Euskaltzaindiak sorreratik beretik euskararen «jagotea» ere bere gain hartu zuen. Hala beharko, zeren garai hartan ez zen inongo erakunde administratiborik euskararen «estatus»-az arduratuko zenik. Azken batean, Euskaltzaindiari egotzi zitzaion EUSKARA ZAINTZEKO ardura.

Denboran zehar, gauzak aldatuz joan dira eta Euskaltzaindiak berak ere jakin du garai desberdinetara egokitzen: lehen jaialdiez, bertso saioez, euskaraz irakasteko tituluez, eta abarrez arduratu beharra izan zuen. Hori zen garai hartan euskal gizarteak eskatzen ziona. Eta Euskaltzaindiak ez dio orain arte entzungor egin gizartearen eskariari. Gero, zorionez, gauzak aldatuz joan dira. Orain baditugu lehen ez bezalako egitura politiko-administratiboak. Orain euskarak aitortua du bere ofizialtasuna Euskal Herriaren parte handi batean behintzat. Gauzak ez dira, horrenbestez, lehen bezala. Eta euskararentzat ere ez. Hori ongi ulertu du Euskaltzaindiak, nik uste.

Euskaltzaindiaren osaerari erreparatzen badiogu eta lehengo garaiak oraingoekin alderatzen, argi ikusten da hor ere gauzak zenbat aldatu diren. Lehen ez zen unibertsitaterik, orain unibertsitateetan beretan hainbat ikerketa eta lan egiten dira euskararen gainean. Eta Euskaltzaindian bertan ere begira zenbat kide diren unibertsitate mundukoak! Euskaltzaindiaren batzorreetan ere beste horrenbeste.

Gaur lehen ez zituen zenbait erronkari egin behar dio aurre Euskaltzaindiak. Eta zilegi baldin bazait esatea, Euskaltzaindiak bere lekua egin behar du akademi-munduan. Euskal Herriak hala eskatzen dio. Eta orain arte asmatu duela esan dezakegun bezala, hemendik aurrera ere asmatuko duzuela iruditzen zait. Zuzendaritza berria duzue. Espero izatekoa da behar bezala gidatuko dituela Akademiaren pausoak.